

Osiñaga auzoa • Tel: 943-55 68 94 • HERNANI

Oriotik oinez etortzeko aukera

LARRE-GAIN BASERRIA • EREÑOTZU • HERNANI

SUSTRAIAK, BIHOTZA ETA KULTURA

'Usurbil: sagarraren bihotza, sagardoaren kultura' marka eratu dutela sagarraren eta sagardoaren kultura zabaltzeko eta Usurbilen egiten diren egitasmoak bateratzeko eta koordinatzeko asmoarekin.

Irailaren 6an aurkeztu zuten *Usurbil*: *sagar-raren bihotza, sagardoaren kultura marka*, Usurbilen bertan. «Iraganean zer izan garen jakinda, etorkizunera begirako apustua da», nabarmendu zuen Xabier Arregik, Usurbilgo alkateak. Izan ere, marka herriaren sustraien, bihotzaren eta kulturaren ispilua da.

Usurbilgo alkateak ez ezik, marka sortu duten erakunde eta elkarteetako ordezkari hauek parte hartu zuten ekitaldian: Mikel Izagirre Alkartasuna base-rritarren kooperatibako lehendakariak, Jakoba Errekondo Sagar-
doaren Unibertsitatea elkarteko ordezkariak, Aizpea Aizpurua Noaia kultur elkarteko ordezkariak, Olatz Mitxelena eta Unai Agirre Gipuzkoako Sagardogile Elkarteko ordezkariak, eta Usurbilgo sagardogileak.

HERRI ONDARE BIZIA
[Izurbil...]

Usurbil, sagarra eta sagardoa «elkarri lotutako hiru kontzeptu» dira, Usurbilgo alkatearen hitzetan. «Sagarra eta sagardoa gure bizimoduaren ardatz izan dira mendeetan, eta, horregatik, herri ondare garrantzitsua dira». Argi

ikusten da hori Usurbilen, histor-
ian, kulturean, nekazaritzan, hez-
kuntzan, sorkuntzan, turismoan,
paisaian, garapen ekonomikoan,
enpleguan, merkataritzan eta lu-
rralde antolaketan. «Ez dira soilik
kontzeptu historikoak, geldoak.
Ekinean ari dira, bizi-bizirik dau-
de. Herri ondare bizia da».

Izan ere, sagarra eta sagardoa ardatz dituen jarduera ekonomiko indartsua du Usurbilek, jarduera ekonomiko nagusietako bat baita. Horrez gain, Usurbilen jarduera eta ekitaldi ugari antolatzen dira sagarraren eta sagardoren inguruan. Aipagarriak dira, esaterako, aurtien zazpigarren aldiz antolatu den Sagastiak Loretan zikloa eta maiatzaren 19an 38. aldiz egingo den Sagardo Eguna.

Sagarraren eta sagardoaren inguruan antolatzen diren jarduerak eta ekitaldi horiek guztiak koordinatzeko beharra ikusi dute, eta behar horri erantzuten dio, hain zuzen ere, *Usurbil: sagarraren bihotza, sagardoaren kultura* markak. «Urteko egitarau bate-ratua izateak indarra eta oihartzuna ematen dio gure eskaintza-ri, bai kanpora begira, bai barrura begira. Gainera, herriko eragileen arteko lankidetzak, proposamen

eta egitasmo berriak er-
modua izatea nahi gendake

Beraz, sagarraren eta sagardoren kultura ezagutarazteko bultzeko eta sendotzekin egokia da *Usurbil: sagardo bihotza, sagardoaren* liburua. Horrela, markaren urrats garrantzitsua egiten da Usurbilen, Jakoba Erreko sagardoaren Unibertsitatearen kideak aurkezpen ekitalia antolatuz azpimarratu zuten: «Gaur sagarraren eta sagardoaren kultura Usurbilen osatzen denean, 100 urte osokoa da. Txorierriko Sagardotegiaren 100. urte txiki eta Sagardo Egutetiko 100. urte handia osatzen dira». Ez da inon halako egutia

Bi egitasmo nabarmenak
tuen Errekondok. Batek
tasuna baserritarren kopu
bak eskaintzen dituen presen
tza ikastaroak: «Euskal He
egiten diren bakarrak eta
ekartzen diren irakasleak
edozein». Eta, bestetik, «
kultur elkarteak San Tomaso
nean antolatu ohi duen
etxeetako sagardo lehiaket

@ Informazio
nahi izanez gero
webgune hauet
www.usurbil.eus



Usurbil: sagarraren bihotza, sagardoaren kultura markaren aurkezpena. USURBILGO UDALA

